



INTXAURRONDO HEGOA IP

Donostia

IKASTETXEKO HEZKUNTZA PROIEKTUA

2016-2017

1. IKASTETXEKO TESTUINGURUAREN AZTERKETA

Intxaurrondo auzoan 1999.urtean, izena emateko garaian, haur talde bat eskaintza publikotik kanpo gelditu zen eskolaratzeko tokirik ez zegoelako.

Hori zela eta, Hezkuntza Sailak 1999-2000 ikasturte horretan Egiako auzoan, Aitor ikastolako eraikuntzan hain zuzen ere, bi urteko gela ireki zuen eta Hego Intxaurrondon Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxerako eraikin berria egitea erabaki zuen.

2000-2001 ikasturtean beste gela bat ireki zen eta Aitor ikastolan bi eta hiru urtetako haurren gelak zeuden.

2001-2002 ikasturtean behin betiko Baratzategi kaleko eraikinean kokatu zen CEP Intxaurrondo Hegoa IP izenarekin.

Nahiz eta eraikuntza lerro bateko ikasleak jasotzeko planifikatua izan, auzoaren hazkundearekin batera, laster bi lerroko ikastetxea bihurtu zen eta txiki gelditu zitzaigun.

Eskolako handitze obrak egin bitartean (bi urte) prefabrikatu pare bat jarri zizkiguten patioan. Obra hauetan hirugarren pisu oso bat, ganbara zegoen tokian mediateka eta 4 gela berri, areto nagusia, soinketa gela, aldagelak, dutxak eta frontoia egin zituzten.

Obra guztiak 2008ko uztailean bukatu ziren, prozesu luze baten ondoren, beraz 2008-2009 ikasturtean eskola osoa disfrutatzen hasi ginela esan dezakegu.

Gaur egun, lerro bakarreko eskola da, maila batean izan ezik.

Gure eskola kokatua dagoen inguruko giza ezaugarriei dagokienez, familien giza eta kultur baliabideak, ISEK edota hizkuntza alderdiak aztertu beharrean gaude, zentzu honeta eskola sortu zenetik ez gero bilakaera beherantz joan da. Datu adierazgarri bezala, aipatu gure Lehen Hezkuntzako ikasleriaren % 72a eta Haur Hezkuntzako %80a jangelako bekaduna dela. Bestalde, baliabide materialerako dirulaguntza %67ak jasotzen du Lehen Hezkuntzan eta %64ak Haur Hezkuntzan. Gure ikasleriaren familiek, orokorrean, ISEK maila ertain-baxua du eta azken ebaluazio diagnostiko txostenen arabera, joera beheraka izan da.

Hizkuntza alderdiari dagokionez, gure ikasle gehienen ama hizkuntza gaztelania da. Nahiz eta ikasle batzuen ama edo aita euskaldunak izan, beraien arteko harremanetan gaztelaniarako joera erabatekoa da. Auzoko kaleetan ere euskararen erabilera oso baxua da eta horrek erronka handia suposatzen du ikastetxe barruan hizkuntza helburuak gauzatzeko garaian: haurren gehiengo nabarmen batek euskara "hizkuntza

akademiko” bezala erabiltzen du soilik. Harremanetan eta aisialdian, berriz, gaztelaniara jotzen dute. Nahiz eta ikasle batzuen ama edo aita euskaldunak izan, beraien arteko harremanetan gaztelaniarako joera erabatekoa da.

Gure ikastetxeko familien egoerari dagokionez:

-- % 5aren bi gurasoek euskara dakite. Normalean etxean ere euskara erabiltzen dute.

-- % 26ak ama edo aita euskalduna du. Kasu hauetan etxeko hizkuntza gaztelania ohi da.

-- % 78ak guraso erdaldunak ditu : gaztelaniaz mintzo direnak (%74a), eta bestelako hizkuntza erabiltzen dituztenak (galegoa, arabiera, errusiera, ukrainera, ingelesa, italiara ...). Urtetik urtera hauen presentzia aldatzen joaten da. Hauen artean badira zenbait guraso euskararen jakite maila txikia dutenak, eta seme-alabekin euskara erabiltzen dute esaldi arruntak esateko egoera konkretu batzuetan.

Irakasle guztiok euskararen PL2a dugu eta une honetan hiru irakasle ingeles tituludunak dira. Gaztelania guztiok menderatzen dugu. Langile ez irakasleek, sukaldariak, jangelako zaindarien, atezainen, eskolaz kanpoko ekintzetako begirale/entrenatzaileek, eta haurtzaindegiko arduradunak euskara erabiltzen dute. Euskara ez dakiten langile bakarrak garbitzaileak dira.

2. PRINTZIPIOAK, BALIOAK ETA NORTASUN EZAUGARRIAK

Intxaurrondo Hegoa ikastetxearen egitasmoa, honako printzipio hauetan oinarritzen da: Publikoa, euskalduna, eleanitza, inklusiboa, baloreak bultzatzen dituena, akonfesionala, norbanakoaren ikuspegi integral batetik ikaslea bere aprendizaiaren protagonista dela ulertzen duena eta berritzailea.

- Eskola PUBLIKO bezala definitzen gara: *Hezkuntza, zerbitzu publiko bezala ulertzen duena. Konpentsatzailea eta integratzailea, giza desberdintasunak gainditzen saiatzen dena. Publikoa den heinean, akonfesionala, konpentsatzailea eta anitza izango da: egon litezkeen mota guztietako desberdintasunek tokia izango dute eta ikasleen artean ematen diren desoreka sozialak konpentsatzen ahaleginduko da.*

- *EUSKALDUNA izanik, ikasleak euskalduntzeaz gain, euskara beraren normalizazioa bilatzen duen eskola izango da. Euskara izango da komunikazio-hizkuntza, euskara eta euskal kultura bultzatzen ahaleginduz.*
- *ELEANITZA izango da, euskara bultzatzearekin batera, ingurune eleanitz eta kultur anitza bere egiten duena, ikasleen ama hizkuntza errespetatuz eta atzerriko hizkuntza bat bereganatu dezaten ahaleginduz.*
- *INKLUSIBOA: heziketa ikasleen ezaugarrietan oinarritzen duen eskola bat gara, eta irakaskuntza-ikaskuntza prozesua hartara egokituko da pertsona bakoitzaren berezitasuna aintzat hartuta, aukera-berdintasuna eta berariazko edo beharrezko babesa bermatuko dituen ikastetxea nahi dugu.*
- *AKONFESIONALA: mota orotako ikasleei irekia, erlijio, politika edo ideologia arrazoiengatik desberdintasunik egingo ez duena, eta bertan pentsaera guztiek tokia izango duten arren, eskolak ez du bat bera ere bultzatuko.*
- *BALOREAK bultzatzen dituena: elkartasunaren, besteenganako errespetuaren eta begirunezko jarreraren alde egingo du, bizikidetasun libre eta ez diskriminatzaile eta balore demokratikoen bultzatzaile den eskola.*
- *NORBANAKOAREN IKUSPEGI INTEGRALA: Eskolaren helmuga ikaslearen garapen harmonikoa eta globala suspertzea da. Ikasle bakoitza izaki globala denez, pertsonaren garapen emozionalari, sozialari eta kognitiboari ematen diogu garrantzia.*
- *IKASLEA BERE APRENDIZAIAREN PROTAGONISTA dela ulertzen duena, hezkuntza prozesuan partaide aktibo izan dadin bideak eskainiz.*
- *BERRITZAILEA: eguneroko errealitatera etengabe egoituz joango den eskola nahi dugu, ikasle gogotsuak, jakinmina dutenak, eta ekintzaileak izatera bultzatuko dituena, bizitzan norbanakako nahiz taldeko erronkei sormenez eta, arduraz eta zentzu kritikoz erantzun diezaieten.*

3. HELBURUAK ETA LEHENTASUNAK

Hona hemen gure hezkuntza egitasmoa gauzatzeko finkatzen ditugun helburuak:

- Ikastetxeko ikasle guztiek beren gaitasunak ahal beste garatzea, egunerokotasunean erabiltzeko gai izan daitezen.
- Ikasle guztiei, haien jatorri edo egoera soziala delakoa dela, curriculumerako sarbide aukera berdinak eskaintzea.

- Eskubideekiko eta askatasunarekiko errespetuzko prestakuntza eskaintzea, baita elkarbizitzarako printzipio demokratikoen barruan, tolerantzia eta askatasunezko jarrerak bultzatzea ere.
- Haztura intelektualak eta lanerako teknikak bereganatzea, baita ezagupen zientifikoak, teknikoak, humanistikoak, historikoak eta estetikoak ere.
- Norberak bere nortasuna askatasunean garatu ahal izatea, baita ikasleen prestakuntza osoa lortzea ere, elkarbizitza demokratikoa ahalbidetzen duten baloreetan oinarrituta.
- Ikasleak, Euskal Herriko kide diren neurrian euren kultur nortasuna antzematea, euren herriaren historia eta kultura ezagutzuz, eta ikasleak euren geografia-ingurunean, ingurune sozioekonomikoan eta kultur ingurunean errotzea sustatuz.
- Ikasle guztiek, derrigorrezko irakaskuntza amaitu ondoren bi hizkuntza ofizialak erabiltzen jakitea, biak modu berean, eta aldi berean, euskararen erabilera eta euskararen normalkuntza sustatuz.
- Afektibitatea, norberaren autonomia, autoestimua eta besteekin harremanak izateko gaitasuna modu armoniosuan garatzea.
- Osasunaren babesa eta gaitasun fisikoen garapena ziurtatuko duen hezkuntza eskaintzea.
- Bakerako, askatasunerako hezkuntza, eta herrien arteko lankidetzarako eta elkartasunerako ideietan oinarritutako prestakuntza ahalbideratzea.
- Ikasleengan askotariko gizartean elkarbizitzeko eta gizarteko kultura-aniztasunak dakarren aberastasuna estimatzeko gaitasuna piztea.
- Tolerantziako eta errespetuzko giroa sortzea Hezkuntza –komunitateko kide guztien artean, gatazkak elkarrizketaren eta parte-hartze arduratsuaren bidez konponduta
- Gure ikasleen nortasuna garatzea, sustatzea, ikasteko, arrazoitzeko, eta bere kasa erabakiak hartzeko laguntza eskainiz.
- Ingurunearekiko eta gizartearekiko konpromiso solidarioan heztea, gizabidezko ohiturak garatuta.
- Ikasleek arteaz gozatzea lortzea(musika, antzerkia, literatura, cinema, ondare artistikoa etab.), beren sormena garatuz.
- Irakaskuntzaren kalitatea hobetzen parte hartzea.
- Metodologia globalizatzaile eta disziplina-arteak sustatu, ikasleak protagonista aktiboak bihurtuz.

- Irakasleei prestakuntza eta eguneratze jarraitua izateko aukera eskaintzea, ikastetxearen beharrak eta baliabideak kontuan hartuta.
- Teknologia berrien (IKT) erabilera areagotzea, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren eta eskola-komunitatearen eragileen partehartze-aktiboaren zerbitzura ipinita.
- Gure ikastetxearen eta beste ikastetxe batzuen, toki, erakunde eta elkarte sozialen, kulturalen, lan arlokoen, etab., arteko lankidetzak sustatzea, gure hezkuntza jarduerak aberasteko

4. CURRICULUMAREN ETA ANTOLAMENDUAREN ESPARRUETAKO AUKERAK

4.1. Curriculumaren Esparrua

4.1.1. Metodologia aukerak

Besteak beste, ikaslearen ikuspegi globala eta berritzailea dugun heinean, gure ikuspegi metodologikoa ere globala da, horregatik:

- Arlo desberdinak elkartzen dituen **“Proiektu”** globalizatuen metodologiaren bitartez lan egiten dugu, disziplina-arteko ikuspegi batetik, ikaslearen aniztasunari eta erritmoei egokituz.
- Ikasleak proiektuen diseinuan eta aurrera eramatean partaidetza aktiboa dute, dakitenetik abiatuz, irakaslearen laguntzarekin. Ikaskuntza testuinguru batean kokatzen dugu, esanguratsutasuna ziurtatuz.
- Irakaslearen rola gidari gisa ulertzen dugu, ez ezagupenaren transmisore huts bezala.
- Bizitzarako egoerei aurre egiteko ikasle konpetenteak hezi nahi ditugu, hau da, haien gaitasunak egoera errealean eta erronkei aurre egiteko erabiltzeko gai izan daitezela. Horregatik, gure sekuentzia didaktikoetan “arazo egoera” bati aurre egitea, edota “azken xede” bat aurrera ateratzea dugu helburu.
- Informazio iturri ugari eta anitzak erabiltzen ditugu, ikaslearen eta familien ekarpenak kontutan izanik. Zer esanik ez, gaur egungo errealitateara egokituz, Informazio eta komunikaziorako teknologia berriak ere erabiltzea ezinbestekoa da, modu kritiko eta arduratsu batean.

- Gizalegearen baloreak, aniztasunari errespetuzkoak, hezkidetzakoak, ... arlo guztietatik eta une oro lantzen dira, zehar konpetentzia gisa.
- Balore demokratikoen transmisioa nabarmendu nahi dugu, bai landuko diren edukiak erabakitzerakoan, bai eskolaren antolakuntzako araudian eta egunerokotasunean ere, ikasleen partaidetza, ahal den neurrian, ordezkari sistema baten bidez ziurtatuz.
- Urtean behin, sekuentzia didaktiko bat gutxienez, bertikalki lantzen da, hau da, 2 urteko ikasleetatik hasita, 6.mailako ikasleetaraino, maila guztietako ikasleek parte hartuz. Landuko den gaiaren aukeraketa demokratikoki egiten da, ikasle eta irakasleek botoa emanez, gela bakoitzak proposatzen duen gaia ordezkarien batzordean defendatu ondoren.
- Bakarka zein taldekatze desberdinetan lan egiteko jarduerak diseinatzen ditugu, ikaskuntza kooperatiboko estrategiak suspertuz, desberdinen arteko elkarlana bultzatuz, bai maila bakoitzeko ikasleen artean, bai adin desberdinetako ikasleen artean ere, elkar tutoretza bultzatuz.

4.1.2. Ebaluazioa

- Ebaluazio prozesu jarraia da. Ebaluazioan askotariko estrategiak eta baliabideak erabiltzea aniztasunarekiko erantzunari mesede egiten dion adierazle argia da. Hori kontutan izanik, eguneroko lanaren behaketa eta jasoketaren bitartez, tresna desberdinak erabiliko ditugu: behaketa erregistroak, ikasleen ekoizpenak, errubrikak, froga objektiboak...
- Ikaslea bere ikaskuntza prozesuaren partaide aktiboa dela uste dugu. Horregatik, autoebaluazio estrategiak garatzeak ikaslearen motibazioa areagotzen du bere ikaskuntzaren protagonista dela sentiarazten duelako. Ikaslea bera kontziente izan behar da bere lorpen eta ahulezietaz, beti ere, hobekuntza eta aurrerapena izan behar du helburu. Horregatik, auto ebaluaziorako denbora eta tresnak eskaini behar dizkiogu gure sekuentziak diseinatzerakoan, bai hasieran, aurre ezagupenetaz eta ikasitakoaz ohartaraziz.
- Ikaskuntza kooperatiboa eta talde jardueretan, ikasleen arteko ebaluazioari garrantzia ematen diogu, horregatik ikasleen arteko ebaluazioari ere tarte bat eskaintzen zaio sekuentziak aurrera eramaterakoan.
- Eduki akademikoez gain, ikasleen konpetentzia maila neurtzen da, hau da, haien gaitasunak praktikan arazoei aurre egiteko ahalmena eta estrategiak.
- Aurreko guztia kontutan izanik, irakasleari dagokio legediaren arabera, ikasleak kalifikatzea, baina kalifikazio hutsaz gain, ebaluazioak izaera hezitzailea duela

ulertzen dugu eta honen helburu nagusia, ikaskuntza-irakaskuntza prozesua hobetzea izango da, eta premiak hautemateko, diagnostikoa egiteko eta prozesu osoa birbideratzeko erabiliko da.

4.1.3. Hezkuntza eskaintza

- Intxaurrondo Hegoa Ikastetxe publikoa da eta Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako eskolak eskaintzen ditu.
- Gure ikastetxea D ereduko ikastetxea izanik, irakaskuntza-hizkuntza Euskara da. Hala ere, helburu nagusietako bat ikasle eleanitzak izatera iristea da eta horregatik, gaztelania eta lehen atzerriko hizkuntza batetan (ingelera) konpetentzia maila egoki bat lortu dezaten nahi dugu, gure Hizkuntza Proiektuan zehazten denaren arabera.
- Gure ikastetxean, baliabide propioez gain, ekintza osagarriak antolatuko dira, inguruko erakunde elkarte eta baliabideek eskaintzen digutenaz baliatuz, lantzen ari garen gaiak aberasteko.
- Haurtxoak guraso elkartearen bitartez, eskolaz kanpoko ekintzak antolatzen dira. Eskola eskaintzak betetzen ez dituen ekintza osagarriak izango dira (kirola, hizkuntzak indartzekoak, aisialdikoak...), beti ere hizkuntza euskara izanik (atzerriko hizkuntzan antolatzen direnak izan ezik) eta ikastetxeko hezkuntza proiektu honetan ageri diren helburu eta nortasun ezaugarriekin bateratuz.

4.1.4. Aniztasunari erantzutea

Kontutan izanik Hezkuntza Premia Bereziak dituzten ikasleak arrazoi oso desberdinengatik izan ditzaketela, laguntzak antolatzeko garaian ere irizpideak desberdinak izan daitezke. Hala ere irizpide orokor batzuk mantentzen saiatuko gara:

- Pedagogia Terapeutikoko irakasleen laguntzak banatzeko orduan, HPBdun ikasleei, tipologiaren eta beharrakizango dira kontutan. NCE duten ikasleek lehentasuna izango dute beti.
- Bestalde, baliabide pertsonalak kudeatzeko garaian, ikasle bakoitzarentzat erreferente pertsonal ahal den eta gutxien izan daitezen saiatuko gara. Horregatik, PTak maila eta ziklo berdineko ikasleekin mantentzen saiatuko gara, hauen laguntza eta jarraipena errazteko.

- Espezialista hauen lana, bereziki Haur Hezkuntzan eta Lehen hezkuntzako lehenengo zikloan hizkuntza lantzen laguntzeko erabiliko da, hurrengo mailatan ikaskuntza-tresna ezinbestekoa izango baita veste arloetako edukinak barnera ditzaten.
- Ahal den neurrian eta ikasleak integrazteko asmoz, laguntzak gela arruntean emango dira. Hala ere, edukin aldetik atzerapen handiegia dagoenean, eta laguntzak gelaz kanpo eman behar badira, zikloka talde txikiak antolatzen saiatuko gara, baliabide pertsonalak aurrezteko.
- Indartze neurri arruntak direnean, ziklo bereko tutoreen artean antolatzen saiatuko gara, hauen saio libreak erabiliz.
- Baliabide pertsonalez gain, indartze neurri bezala, talde banaketak egingo dira, ikasle kopurua talde txikiagotan banatuz (desdobleak).
- HPBko bestelako profesionalen laguntza behar duten ikasleei erantzun egokiena emateko (hezitzaile, logopeda...), tutoreekin ordutegi aproposena adostuko da.
- Berandu eskolaratutako ikasleek ere indartze neurriak jasoko dituzte gelako martxara lehen bai lehen egokitu ahal izateko.
- Atzerriko herrialdeetatik datozen ikasleek HIPI laguntza jasoko dute eta legeak onartzen dituen kasuetan Euskara Salbuespen eskaera egingo da.

4.1.5. Orientabidea eta tutoretza

Tutoretza eginbeharra eskolako esparru guztietan zeharka garatzen den ekinbide bat da, uneoro hezkuntza prozesuaren edozein alderdiri ekiten baitzaio, ikaslearen testuingurua edozein delarik ere. Tutorea bere taldearen dinamizatzailerak izanik, berak hartu behar du tutoretzaren ardura. Tutoretza lana ez da gelan gelditzen, eskolako bizitza osoari eragiten baitio. Honakoak dira tutorearen aginbeharrak:

- Ikasleriaren hezkuntza eta heltze-garapenaren jarraipena.
- Ikasleriari orientatzea alderdi pertsonalean zein akademikoan.
- Irakasleriaren parte hartzea hezkuntza lan horretan.
- Ikasleriaren integrazioa bideratzea zentroan, taldean eta eskolaren dinamikan, kooperazioa eta aniztasunarekiko errespetuzko jarrerak sustatuz.
- Talde kohesioa bultzatzea.
- Ikaste-irakaste prozesuak, behar delarik, pertsonalizatzen laguntzea.

- Ikaste-irakaste prozesuen jarraipena egitea, ikasleriaren beharrak eta zailtasun bereziak antzemate aldera, eskolatik erantzun egokia emateko eta, kasuak kasu, bidezko aholkularitza erdiesteko.
- Bere ingurunean, ikasleriaren parte hartzeko jarrerak sustatzea.
- Ikasleriaren berezko ezaugarriei programazioak egokitzea.
- Curriculumaren barruan, beste tutoreekin ekinbideak eta lan-ildoak adosten laguntzea.
- Gurasoekiko harremanak errazten laguntzea.
- Seme-alaben hezkuntza eta orientazio prozesuetan gurasoak inplikatzea.
- Gurasoei ematea beren seme-alaben hezkuntza prozesuaren alderdi guztien gaineko informazioa.

4.1.6. Hizkuntzen erabilera eta tratamendua

Hizkuntzen ikaskuntza planteamendu instrumentaletik egiten da, hau da, tresna bezala erabiltzera bultzatu eskolan egiten diren gauzak burutzeko. Horretarako:

- Hizkuntza desberdinen arteko gaitasun komunikatiboen transferentziak errazteko curriculumeko hizkuntza guztiak metodologi berarekin tratatuko ditugu.
- Hiru hizkuntzak (euskara, ingelesa eta gaztelania) arloetako edukiak lantzeko baliabideak izango dira.
- Hizkuntzako prozedurak ez dira bakarrik hizkuntza arloetan landuko baizik eta arlo guztietan antolatuko dira prozedurok lantzeko jarduerak.
- Familian garatzen diren hizkuntzekiko jarrerak ikasketa arrakastatsua lortzeko oinarritzakoak direla jakinik, familien ezagutza eta parte hartzea bultzatzeko jarduerak sustatuko ditugu.
- Hizkuntzek eskolatik kanpo jasaten dituzten desberdintasunak gainditzeko eredu orekatzaileak eta erabilerarako arauak eskainiko ditugu.
- Gela barruan nahiz gelatik kanpoko komunikazioan eskolako hizkuntza desberdinez baliatzeko ekintzak antolatu, betiere, euskararen aldeko jarduerak antolatzeko joera izanik hizkuntza hau suspertzeko.
- Hizkuntza ezberdinek dituzten identitate ezaugarriak ezagutzeko bitartekoak eskaini.
- Ingelesaren ikaskuntzan Haur Hezkuntzako 2.zikloko 2.mailan hasi, hezkuntza eleanitzaren ikuspegitik abiatuta.

- Eskolako hizkuntza, hots, euskara, ezagutzen ez duten ume eta familiekiko laguntzazko jarrerak bultzatu, komunikazioa erraztu eta beste kultura eta hizkuntzekiko errespetua azaldu.
- Jaiak, ipuin kontalariak, erakusketak... antolatzea, bertan ahoz edo idatziz beste hizkuntza batzuk erabiltzen direlarik.
- Etorkinen familiei zuzendutako harrera antolatu, euren hizkuntzetako testuak erabiliz eta Hezkuntza Saileko zerbitzuekin koordinatuz (itzultzailea behar denean lortu ahal izateko, e.a.).
- Inguruarekiko harremanak sendotu, hizkuntza kulturaren tresna bezala ezagutuz eta bere erabilera erreala baliabide bihurtuz.
- Inguruko ekitaldi kulturalak ezagutu.
- Tradiziozko zenbait ospakizunetan parte hartu, hauek garatzen dituzten balioak aztertuz.
- Monitorea, elkarteak... ekintza desberdinetan euskaraz parte hartu, ahal den neurrian.

4.1.7. Prestakuntza eta berrikuntza

Eskola berritzaile bezala definitzen garen heinean, gizartearen aldaketetara egokitu beharrean gaude, gure ikasleriak gizarteratzeko behar duen heziketa eskaini ahal izateko. Ezinbestekoa da irakasleek premia horiei erantzuteko gai izan daitezen formakuntza jarraia jasotzea. Horregatik, astero 2 orduko tarte eskainiko zaio eginbehar honi. Klaustro osoa izango da partaide eta irakasleen ordutegietan agertuko da. Formakuntza premiak klaustroan adosten saiatuko gara baina, Zuzendaritza Taldearen baitan geldituko da saioen antolakuntza. Jorratu beharreko alderdiei dagokienez, pedagogía eta metodologiarekin lotutako alderdiez gain, antolamenduzko eta baliabide didaktikoen berrikuntzakoak (IKTak barne) izango dira.

4.2. Antolamenduaren esparrua

4.2.1. Ikastetxearen antolamendua, funtzionamendua eta kudeaketa

4.2.1.1. Ikastetxeko Aginte Organoak

Intxaurrondo Hegoa Ikastetxe Publikoan honako organo hauek izango ditugu:

- Taldeko Organoak:
 - Ordezkaritza Organo Gorena (OOG).
 - Ekonomi Batzordea
 - Segurtasun eta Higiene Batzordea
 - Elkarbizitza Batzordea
 - Batzorde Iraunkorra
 - Jangela Batzordea
 - Eskolaz kanpoko ekintzen batzordea
 - Klaustroa.
 - Zikloko ordezkariak
 - Pedagogia batzordea
 - Zuzendaritza Taldea.
 - Gurasoen Batzarra.
- Lagun bakarreko organoak:
 - Zuzendaria.
 - Ikasketa-burua.
 - Idazkaria.

Ordezkaritza Organo Gorena (Eskola Kontseilua)

Ordezkaritza Organo Gorena (OOG), euskal eskola publikoko ikastetxee bezala, eskola-elkarteko kideek parte hartzeko duten organoa dugu; eskola-bizitzan eragina duten funtsezko erabakiak berak hartzen ditu, bera dugu ikastetxearen autonomia-esparruan, ikastetxearen funtzionamenduaren arduraduna.

OOG jarraian azaltzen diren partaideek osatuko dute:

- a) Ikastetxearen zuzendaria, Eskola Kontseiluaren lehendakaria izango dena.
- b) Ikasketa-burua.
- c) Ikastetxea kokatuta dagoeneko Donostiako Udaleko ordezkari bat.

- d) Klaustroak aukeratuko dituen hamar irakasle.
- e) Ikasleen hamabost guraso.
- f) Administrazioiko eta zerbitzuetako langileen ordezkari bat.
- g) Ikastetxeko idazkaria, organoaren idazkaria izango dena, hitzarekin eta botorik Gabe

Eskola Kontseiluak, jarraian azaltzen diren atribuzioak ditu:

- a) Ikastetxearen hezkuntza-proiektua (IHP) eta antolamendurako eta jardunbiderako araudia (AJA) , betetzen delaz arduratzea eta ebaluazioa egitea.
- b) Ikastetxearen curriculum-proiektua eta (ICP) Ikastetxearen Hezkuntza Proiektura egokitzen dela informatzea.
- c) Ikastetxearen Urteko Plana onestea.
- d) Irakasleen prestakuntzarako eta birziklapenerako jarduera-programa onestea, baita Eskolaz Kanpoko Jardueren Plana eta Urteko Kudeaketa-Plana ere, aldiro-aldiro egin beharreko jarraipena eta ebaluazioa bere gain hartuz.
- e) Ikastetxearen Urteko Memoria onestea.
- f) Zuzendaria aukeratzea, baina aukeratu baino lehen ikastetxearen gainontzeko lagun bakarreko organoei jakinaraztea. Zuzendariaren izendapenaren baliogabetzea proposatzea, horretarako arrazoirik izanez gero, edo etetea, eta horretarako, aldez aurretik Eskola Kontseiluko partaideen bi herenen gehiengoaren akordioa hartu behar da.
- g) Ikasleak ikastetxean onartu ala ez erabakitzea, horretarako indarrean dauden arauak jarraiki.
- h) Ikasleen arteko arazoak konpontzea eta horretarako dauden neurri zuzentzaileak ezartzea, ikasleen eskubideen eta betebeharren araudiaren arabera.
- i) Beste zenbait ikastetxerekin, kultur helburuekin eta hezkuntza-helburuekin lankidetzarako harremanak finkatzea.

j) Ikastetxeko instalazioen eta ekipamenduaren berrikuntza sustatzea, baita instalazioak eta ekipamendua zaintzen direla kontrolatzea ere.

k) Ikastetxearen jarduera orokorra, administrazioari eta irakaskuntzari dagokienez, gainbegiratzea.

l) Hezkuntza Administrazioari Ikastetxearen berriazko izendapena edo aldaketak proposatzea.

Irakasle Klaustroa

Irakasleen klaustroa ikastetxean lan egiten duten irakasle guztiek osatuko dute, eta ikastetxearen zuzendaria izango da buru. Klaustroaren funtzioak jarraian adierazten direnak izango dira:

a) Ikastetxearen curriculum-proiektua eta irakaskuntza-jardueren programa lantzea eta onartzea.

b) Irakaskuntza-jardueren programaren betetzea Eskola Kontseiluari jakinaraztea, hartara Eskola Kontseiluak urteko memoria egin dezan.

c) Ikasleen ebaluazioari eta errehabilitazioari buruzko irizpideak finkatzea eta koordinatzea.

d) Ikasleen orientaziorako eta tutoretzarako funtzioak antolatzea eta zuzentzea.

e) Ikastetxean garatu beharreko pedagogia-saiakuntzaren edo pedagogía-ikerketaren esparruan ekimenak sustatzea.

f) Funtzionamendurako arauak onartzea.

g) Irakasleen prestakuntzari dagokionez, prestakuntza-jardueren, eskolaz kanpoko jardueren eta jarduera osagarrien programa jakinaraztea; aipatu programa Euskal Eskola Publikoaren Legearen 36.3 artikuluan xedatutakoa kontuan hartuz landuko da Eskola Kontseiluak onartu baino lehen.

Zuzendaritza Taldea.

Zuzendariak, Ikasketa Buruak eta Idazkariak osatzen dute.

Zuzendaritza-taldearen funtzioak honako hauek izango dira:

a) Ikastetxearen zuzendaritzari eta koordinazioari buruzko erabakiak hartzeko orduan, zuzendariari laguntzea, baita ikastetxearen funtzionamenduari dagokionez eragin handia duten erabakiak hartzeko orduan ere.

b) Kudeaketa-proiektua, prestakuntza-jardueren, eskolaz kanpoko jardueren eta jarduera osagarrien programa lantzea, baita urteko kudeaketa-programa ere, Eskola Kontseiluak horiek guztiak onar ditzan.

c) Aurreko hizkian aipatu diren programak gauzatzen direla koordinatzea eta gainbegiratzea, eta Eskola Kontseiluari programen gauzatzeari buruzko informazioa ematea, hartara urteko memoria onesteko.

d) Urteko memoriaren zirriborroa egitea, Eskola Kontseiluak eztabaida dezan.

e) Eskola Kontseiluari euskal eskola publikoko beste ikastetxe batzuekin lankidetzaharremanak finkatzea proposatzea, baita proposamen desberdinak egitea ere, hartara Eskola Kontseiluak egokitzat jotzen badu, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailera luza ditzan, beste erakunde batzuekin, kultur mailako zein hezkuntza-mailako helburuak dituztenak, hitzarmenak sinatzeko.

f) Irakasle-taldeak antolatzea eta ikasturte bakoitzaren hasieran, irakasleak bere jarduerak zeintzuk izango diren zehazteko irizpideak finkatzea, ikasgaia arautzen duten arauen arabera. Haur Hezkuntzako irakasleek bi ikasturte emango dute talde berarekin, 2-3 urte eta 4-5 urte. Lehen Hezkuntzakoek ere zikloa bukatu arte ikastaldearekin jarraituko dute. Zikloa bukatutakoan, irakasle tutoreen artean konponketarik ez balego, ziklo batean urte gehiena daraman irakasleak aldatu beharko du zikloz.

Hala eta guztiz ere, ahal den neurrian, Zuzendaritza Taldeak beti antolatuko ditu irakasle-taldeak denak ziklo batean berriak ez izateko moduan.

g) Ikastetxera iristen diren deialdi, zirkular, erabaki eta xedapen guztiak irakasleen klaustroari jakinaraztea, zehazki eta publikoki.

Gurasoen Batzarra

Gurasoen Batzarra dugu gurasoek ikastetxearen kudeaketan berriaz parte hartzeko duten organoa. Ikastetxean matrikulatu diren ikasle guztien gurasoek edo tutoreek

osatuko dute honako organo hau, eta ikastetxeko Zuzendariak egingo du biltzeko deialdia eta bera izango da bilkuraren buru; ikasturte bakoitzaren hasieran gutxienez behin bilduko da.

Gurasoen Batzarrak honako funtzio hauek beteko ditu:

a) Egokitzat jotzen dituen proposamenak ikastetxeko gainontzeko organoetara luzatzea, organo horien eskumenekoak diren gaiei dagokienez, besteak beste irakaskuntza-jardueren programaren gauzatzea, prestakuntza-jardueren, eskolaz kanpoko jardueren eta jarduera osagarrien programa eta urteko kudeaketa-programa.

b) Zuzendaritza-taldearekin eta klaustroarekin harremanak izatea, hartara ikastetxearen hezkuntza-proiektuaren garapenean ahalik eta lankidetzat handiena lortzeko.

c) Gurasoen ekimena ikastetxearen bizitzan aktiboki parte hartzeko sustatzea.

d) Taldeko organoetan gurasoen ordezkariak bilkuretan azaltzea, egindako kudeaketari buruzko informazioa emateko.

e) Funtzionamendurako arauak onestea.

Ikasleen guraso-elkarteak.

Gurasoen elkarteak ikastetxean arazorik gabe eratu daitezke, horretarako aipatu ikastetxeko ikasleen hiru gurasok edo tutorek, edo gehiagok, akordioa hartuz gero. Elkartearen eraketa-akordioa formalizatzeko bertaratu guztiek Aktan sinatu behar dute, eta Aktarekin batera Elkartearen Estatutuen testua ere azalduko da; horrez gain, indarrean dagoen otsailaren 10eko 66/1987 Dekretuan xedatutakoari jarraituko zaio, zeinek Euskal Autonomia Erkidegoko ikasleen Guraso Elkarteak arautzen dituen (EHAA, 87-4-7).

Ikastetxe batean Guraso Elkarte bat baino gehiago izan daiteke, beti ere legalki eratu badira.

Ikastetxeko ikasleen gurasoak ezin dira behartu eraturako Elkarteetara inskribatzera, ezta elkarte horiei ekonomikoki laguntzera ere, beraz, Elkarte horietako kide izatea norberak bere borondatez erabakiko du.

Lagun bakarreko organoak

Zuzendaria

Zuzendaria dugu ikastetxearen kudeaketa orokorraren eta funtzionamenduaren arduraduna, eta bereziki ikastetxeko irakaslanaren arduraduna, horretarako Eskola Kontseiluak emandako norabideak betetzen dituelarik. Zuzendaria Eskola Kontseiluak aukeratuko du, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak aurretik funtzio horretan jarduteko kreditatu dituen ikastetxeko irakasleen artetik, beti ere eskatzen diren baldintzak betetzen badituzte eta zuzendari-kargua betetzeko kandidatura horretarako ezarritako epearen barruan dagokion Eskola Kontseiluaren aurrean aurkeztu badu. Ondoren, aukeratzen badute eta Eskola Kontseiluak onartzen badu, zuzendaria Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak izendatuko du, lau urte iraungo dituen agintaldirako.

Zuzendariari honako funtzio hauek dagozkio:

- a) Ikastetxearen ordezkari ofiziala izatea.
- b) Ikastetxearen funtzionamendua zuzentzea eta koordinatzea, eta ikastetxearen ekitaldi akademikoen eta taldeko organoen bileren buru izatea.
- c) Ikastetxearen gastuen urteko programaren arabera, gastuetarako baimenak ematea eta ordainketak agintzea.
- d) Euskal Eskola Publikoaren Legearen 63. artikulua aipatzen dituen lanen, zerbitzuen eta hornikuntzen kontratazioak egitea.
- e) Ziurtagiri eta agiri ofizialak onikustea.
- f) Legeak eta indarrean dauden gainontzeko xedapenak betetzea eta betearaztea.
- g) Eskola Kontseiluak esandakoari jarraiki, ikastetxean zuzendaritza-kargu desberdinak beteko dituzten irakasleak izendatzea, ondoren Hezkuntza Administrazioak izenda ditzan.

h) Ikastetxera atxikitako langile guztien buru izatea.

i) Klaustroak esandakoari jarraiki, Ikastetxeko irakaskuntza-jarduerak eta jarduera osagarriak garatzeko lokalen erabilera zehaztea; Eskola Kontseiluak esandakoari jarraiki, Ikastetxeko ikasleek eskolaz kanpoko jarduerak garatzeko, baita Ikastetxeko ikasleen elkartean funtzionamendurako eta guraso-elkartean funtzionamendurako eta Hezkuntza Elkarteko sektore desberdinek bilerak egiteko lokalen erabilera zehaztea; horrez gain, Lurralde Ordezkaritzara bidali behar dira, aldeko zein kontrako txostenarekin batera, Ikastetxeko kanpoko erakundeek, ikastetxearen ordutegitik kanpo, ekintza desberdinak antolatzeko egindako eskaera puntualak ere.

j) Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko organoek eskuordetzen dituzten gainontzeko eskumenak; beste arau batzuei jarraiki egozten direnak eta Eskola Kontseiluak egozten dituenak.

Ikasketa-burua.

Ikasketa-burua dugu curriculum-proiektua gauzatzen dela baita irakaskuntza-jardueren programa gauzatzen dela zuzenean koordinatuko eta zainduko duen organoa; gainera, eta ikastetxeko zuzendaritza-taldeak onartutako irizpideen arabera, jarraian azaltzen diren funtzioak ere bete beharko ditu:

a) Zuzendaria ez dagoenean edo gaixo dagoenean ordezkatzea.

b) Izaera akademikoa duten jarduera osagarriak eta eskolaz kanpoko jarduerak, ikastetxearen hezkuntza-proiektuari, curriculum-proiektuari eta urteko programaketa orokorrari dagozkionak.

c) Ordutegi akademikoak antolatzea eta betetzen direlaz arduratzea.

d) Irakasle bakoitza ikastetxeko unitate batera edo gehiagora bidaltzea eta irakasle-taldeak antolatzea.

e) Zikloko taldeen zereginak koordinatzea.

f) Ikastetxeko tutoreen eta ikastetxera atxikitako gainontzeko irakasleen ekintzak, ezarritako programazioen eta tutore-ekintzarako planen arabera koordinatzea eta zuzentzea.

g) Hezkuntza-elkarteko kide desberdinen artean elkarbizitza, errespetua eta tolerantzia sustatzea, ikasleen eta irakasleen eskubideen eta betebeharren araudia beteko dela ziurtatuz.

h) Zuzendariak egozten dion beste edozein funtzio, bere eskumen-esparruaren barruan, edo xedapen arau-emaileek zein ikastetxeko antolamendurako eta funtzionamendurako araudiak egozten dizkionak.

Idazkaria.

Idazkariak honako funtzio hauek bete beharko ditu:

a) Eskola Kontseiluak, zuzendaritza-taldeak eta klaustroak egiten dituzten bilkuretan eztabaidatuko den gai-zerrenda prestatzea, aipatu organoen lehendakariak xedatzen duenaren arabera. Gainera, organo hauen bilkuren aktak idatzi beharko ditu.

b) Taldeko organoen bilera ororen, ikastetxeko Zuzendariak formalki deialdia egin ondoren egiten direnak, aktak idaztea.

c) Ikastetxearen aktak, espedienteak eta dokumentazioa zaintzea eta bertako organoek erabiltzeko prest edukitzea. Ikastetxeko material didaktikoa zaintzea.

d) Ikastetxeko ekintza edo erabaki eta akordio guztiak ziurtatzea, baita ikastetxeko aurrekariak, liburuak eta agiriak ere.

e) Ikastetxeak landutako antolamendurako eta funtzionamendurako araudiak eta xedapen arau-emaileek egozten dizkieten funtzioak.

4.2.2. Eskola antolamendua

- Irakasle-taldeentzako antolamendua.

Zuzendaritza-taldeari dagokio irakasle-taldeak antolatzea, baita ikasturte bakoitzaren hasieran, irakasleak euren jardueretara atxikitzeko, esparru honetako arauen arabera, irizpideak finkatzea ere. Funtsean, zentzu honetan urtero Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ikasturtearen hasieran ikastetxera bidaltzen dituen Zirkularrean edo Erabakian azaltzen diren orientabideak hartuko dira kontuan.

- Tutorea.

Haur Hezkuntzan, baita Lehen Hezkuntzako edozein ziklotan ere, ikasle-talde bakoitzak irakasle tutore bana izango du; irakasle tutore honen lana, ikasle-talde beraren beste irakasleen, espezialisten eta laguntzako langileen lanarekin koordinatu beharko da.

Irakasle tutoreak programazio didaktikoa egingo du eta curriculumeko gainontzeko arloetan irakasle bezala jardungo du, beste irakasle espezialisten zein laguntzako irakasleen programazioaren eta irakasletzaren kaltetan izan gabe.

Irakasle tutoreek honako funtzio hauek beteko dituzte:

- a) Ikasleen ikaskuntza orientatzea.
- b) Gurasoei, euren seme-alaben eskolako agertzeari eta irakaskuntza-jardueretan egiten duten partehartzeari buruz informazioa ematea, baita hezkuntza-prozesuari eta izan ditzaketen zailtasunei buruz ere.
- c) Irakasle-taldeak onarturiko tutoretza plana garatzea.
- d) Ikaslea bere taldean eta eskola-bizitzan integratzen laguntzea, baita ikasleengan parte hartzeko jarrerak garatzea ere.
- e) Ikasleek ikaskuntzan azaltzen dituzten zailtasun orokorrenei laguntzea, horretarako programazioan egin beharreko egokitzapenak eginez; horrez gain, banakako hezkuntza-premiak ere kontuan hartu behar dituzte, hartara, egin beharreko curriculum-egokitzapenak egin ahal izateko.
- f) Taldeko gainontzeko irakasleekin programazioaren koherentzia eta irakaskuntzak curriculum-proiektuarekiko eta Ikastetxearen urteko programazioarekiko koherentzia ere koordinatzea.
- g) Laguntzako irakasleekin batera, edo hala badagokio, kontsultorearekin batera, curriculum-egokitzapenak eta hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleekin hezkuntza-mailako esku-hartzea koordinatzea.
- h) Ikasleen ebaluazio-prozesua koordinatzea, eta irakasleen txostenak kontuan hartuz, ikasleak ziklo batetik bestera igarotzeko erabakia hartzea.

-Irakasle espezialistak:

Musika (arte hezkuntzako irakasle berezia izanik), Atzerriko Hizkuntza eta Gorputz hezkuntzako irakasle berezilariek, maila bakoitzari dagozkion ordutan emango ditu eskolak, beti ere, gure metodología globalizatu eta disziplinarrekotasuna mantenduz. Horregatik, haien ikasleen tutore eta gainontzeko espezialistekin batera parte hartuko dute sekuentzia didaktikoen diseinuan eta taldeko ebaluazio saiotan ere.

Atzerriko Hizkuntzako ordu kopuruari dagokionez, 4. mailatik Aurrera, astean 4 ordu eskainiko zaizkio, hizkuntza bera lantzeaz gain, hizkuntzaren bitartez gainontzeko arloetako edukinak bereganatu ditzaten "CLIL" ikuspegi batetik, hau da edukin eta hizkuntza modu integratu batetan ikasteko ikuspegi metodologikoarekin.

-Irakaskuntza-Koordinaziorako Organoak

Zikloko taldeak

Haur eta Lehen Hezkuntzan zikloko taldeak izango dira; zikloko talde hauek, hezkuntza-ziklo bakoitzari dagozkion irakaskuntzak antolatuko eta garatuko dituzte, Ikasketa Buruaren gainbegiraketa izango dutelarik

Zikloko talde bakoitza **koordinatzaile** batek zuzenduko du, eta koordinatzaile honek jarraian azaltzen diren funtzioak bete beharko ditu:

Dagokion zikloan irakaskuntza koordinatzea, curriculum-proiektuaren eta Ikastetxearen urteko programazio orokorraren arabera.

- Zikloan ebaluazio-prozesuak koordinatzea.
- Pedagogia-koordinaziorako batzordean, zikloko ordezkari bezala parte hartzea.
- Ikasketa Buruak agintzen dizkion funtzioak.

Ziklo bakoitzeko koordinatzailea ikastetxeko Zuzendaritzak izendatuko du: ikasturte baterako izendatuko du, zikloko taldeak proposatuko du eta Ikasketa Buruarekin batera lan egingo du berari dagozkion zereginetan.

Zikloko koordinatzaileek agintaldia amaitzean edo jarraian adierazten ditugun arrazoiengatik, euren funtzioak utziko dituzte:

a) Norberak karguari uko egitea, zuzendariaren onespenerekin.

b) Zuzendariak, zikloko taldearen txosten arrazoituan oinarrituta, eta interesdunari entzun ondoren, kargua utzaraztea.

-Pedagogia Koordinaziorako Batzordea

Gure eskolan pedagogia-koordinaziorako batzorde bat eratuko da, jarraian azaltzen diren partaideak izango dituena:

- Zuzendaria eta Ikasketa Burua.

- Zikloko koordinatzaileak.

- Ikastetxeko Aholkularia edota laguntza taldekoko irakasle bat.

Pedagogia-koordinaziorako batzordeak, Lehen Hezkuntzako eta Haur Hezkuntzako curriculum-proiektua egitea koordinatuko du, baita egin beharreko aldaketak egin ere.

4.2.3. Bizikidetzeta

Intxaurrondo Hegoa ikastetxe publikoan elkarbizitza osasuntsua komunikazioan, errespetuan eta kolaborazioan oinarritutako harremana dela ulertzen dugu, eskola-komunitate osoko pertsona guztien ongizate eta garapen osasungarria lortze arren, ikastetxea bera mikro-kosmos eta bizitza-espazio bezala ulertzen baitugu.

.Horregatik, honako helburu hauek lortu nahi ditugu:

- Hezkuntza Komunitate guztiaren parte-hartze aktiboa ikastetxeko bizikidetasun osasuntsu baterantz.
- Bizikidetasun giro osasuntsu bat izaten lagundu elkarrizketa, harrera eta guztion arteko konponbide bakezaleetatik.

- Eskolako komunitateko partaideok pertsonen arteko diferentziak balioetsi eta kolektibo guztiek eskubide berdinak dituztela aintzatetsi behar dugu, eta emakume eta gizonen arteko eskubide-berdintasunak bereziki onartu.
- Elkarrizketa eta negoziazioa erabiliko dugu adostasunetara iritsi eta gatazkak konpontzeko, bai esparru pertsonalean, bai sozialean.
- Hezkuntza komunitateko partaide guztiak errespetatu eta integratuko dituen elkarbizitza sustatuko dugu, inongo bereizketarik gabe.
- Bizikidetza-behatokia eta batzordea osatu eta indartzea, harreman positiboetan oinarritutako bizikidetza-giroa eta –kultura lortzeko.
- Eskola-komunitateko agente guztien partaidetzarekin Bizikidetza-, hezkidetza- eta genero-indarkeria prebenitzeko plana osatu eta martxan jarri, beti ere hezkuntza- eta prebentzio- izaera lehenetsita.
- Gatazkak konpontzeko orduan bitartekaritza eskaini eta hartu beharreko neurri eta erabakiak elkarrekin hartzea, bat-eginez eta egindako kaltea erreparatzeko bideak eskaintzea.
- Ikasgelan bizikidetza bultzatzeko metodologiak sustatuko dira, Tutoretza Planetan eta ICPan jasoaz.

5. IRAUNALDIA

Intxaurren Hegoa Ikastexeko Hezkuntza Proiektua bizirik dagoen dokumentua izatea nahi dugu, eta indarrean jarrai dezan akordioak agerian jarri behar ditugu. Honela, lehen nabarmendutako ezaugarri eta printzipioak ikastetxearen egunerokotasunean hartutako erabakiekin bateragarriak izan behar dira. Horregatik, osaeran parte hartu ez zuten familia eta profesionalen kasuan, dokumentu honen indarraldia eta legitimazioa bermatzeko hainbat jardunbide eta irizpide ezartzen ditugu:

- Familiekin euki beharreko bileretan IHPren edukiak lantzea.
- Ikastetxera iritsi berriak diren profesionalen harrera-prozesuan IHPren edukiak lantzea.
- Matrikulazio Prozesuetan IHP ezagutaraztea.
- Ikastetxeko hurrengo zehaztapen mailatako dokumentuetan IHPri aipamena egitea (ICP, Urteko Plana, Elkarbizitza-plana, Zuzendaritza-proiektua ...)
- Hezkuntza estamendu desberdinen iradokizunak jasotzea.

- IHP eguneratzeko premiaren adierazleak ezartzea (langile kopuru aldaketa, zuzendaritza aldaketa, ikasleriaren profil aldaketa, ildo metodologiko garrantzitsuen legitimazioa, e.a).
- Laupabost urtean behin hezkuntza-komunitateak IHPrekiko atxekimendua eguneratzeko berrikuspena egingo da eta behar diren aldaketa edo gehigarriak adostuko dira, dokumentu hau eguneratuz, familia eta profesional iritsi berrien aurrean legitimatzeko.

Donostian, 2017ko ekaina